

# KOLORE EZTANDA ITZELA

# ARA... LEAK



# KOLORE EZTANDA ITZELA



LEHEN HEZKUNTZA



HAUR HEZKUNTZA

Hau bai hau sormena! Itzela eztanda! Dakigunez, aratustekak ilusioz beteriko jaiak izateaz gain, arte diziplina eta irudimena lantzeko modua be badira. Egun honeek, aproposak dira errotutako kultura baloreak sendotzeko, beraz, ekin deiogun ospatzeari.

## BARRIKUNTZAREN ARBELA PODKASTA

Albiste bikaina Irratiaren Nazioarteko Egunean. Podcast Elkartearen XII. sarietan hezkuntza saileko onenak kategorian, finalista izan dogu geurea dan Barrikuntzaren Arbela podkasta. Daborduko jaso dogu ziurtagiria. Hementxe dozue entzungai:



## 'DEITUAK' PROGRAMA LANDUZ: ALKARTASUNA ETA KONPROMISOA

Kalitatezko hezkuntzak ezin dau pertsona alde batera itzi. Egungo hezkuntzan, baloreetan heztea ezinbestekotzat jotzen dogu. Hori dala eta, sortu eta jorratu dogu Deituak programa, besteak beste, alkartasuna, konpromisoa, eskuzabaltasuna... sustatuko dauz.



## BEGOÑAZPI IKASTOLAKO IKASKEAK, HAURTZAROAREN ETA NERABEZAROAREN UDAL KONTSEILUAN

Begoñazpi Ikastolako umeek be parte hartzen dabe Haurtzaroaren eta Nerabezeroaren Udal Kontseiluan. Organo honek ikasleen jakin-mina eta interesa sustatzen badau be, gure ingurunea eta uria hobeto ulertzeko be prestatuko dauz. Zorionak parte-hartzaileoi!

